



IODODUN KONTRASTEAREN ERABILIZ OTA EGITEKO NEFROPROFILAXIA

OTA (edo eskanerra) azterketa erradiologikoa da irudi diagnostikoak lortzeko, eta iododun kontrastea eman behar da. Iododun kontrastea zainean injektatzen da, barne-egiturak nabarmentzeko eta diagnostiko medikoa lortzeko. Ondoren, giltzurrunak ezabatzen du.

Giltzurrun-gutxiegitasuna duzunez, giltzurrunak babesteko zenbait neurri edo **nefroprofilaxi** jarri behar ditugu martxan, kalteak eta albo-ondorioak minimizatzeko:

OTA egiten dizuten egunean, zain barneko serum bidez hidratazioa jasoko duzu ORDUBETEZ LEHENAGO ETA 4 ORDUZ GEROAGO.

Hidratazioa emateko, Eguneko Ospitale Medikoan (Txagorritxu Egoitza) edo Eguneko Ospitale Kirurgikoan (Santiago Egoitza) egon beharko duzu: OTAra deitzen dizutenean zehaztuko dizute. Egun horretan ohiko medikazioa ekartzea gomendatzen dizugu.

NEFROPROFILAXIS PARA REALIZAR TAC CON CONTRASTE YODADO

El TAC (o escáner) es un examen radiológico para la obtención de imágenes diagnósticas y que precisa de la administración de contraste yodado. El contraste yodado se inyecta en vena con la finalidad de realzar las estructuras internas y alcanzar un diagnóstico médico. Posteriormente se elimina por el riñón.

Debido a la insuficiencia renal que padece, hemos de poner en marcha una serie de medidas de protección renal o **nefroprofilaxis** para minimizar daños y efectos secundarios:

El día que le realicen el TAC, recibirá una hidratación mediante suero intravenoso DURANTE 1 HORA ANTES Y DURANTE 4 HORAS DESPUÉS.

Para administrarle la hidratación, tendrá que permanecer en el Hospital de Día Médico (Sede Txagorritxu) o en el Hospital de Día Quirúrgico (Sede Santiago): se lo especificarán cuando le llamen para la cita del TAC.

Ese día le recomendamos que traiga su medicación habitual.